

## Zalantzak argituz...

2025ko Madalenetako omendua aukeratzeko herritar batzorde honetan parte hartzeko alkatearen gonbita onartzeko argitu beharreko hainbat gai aurkituko dituzu jarraian. Galdera gehiago badituzu, jar zaitez gurekin harremanetan hemen agertzen diren kontakturako bideak baliatuta.

### **Nola hautatu naute?**

Udal errolda erabiliz egin da zozketa 16 urtetik gorako biztanle guztien artean eta hautatuak izan zaretenei gutuna bidali zaizue.

### **Zein ezaugarri izan dira kontuan zozketa egiteko?**

Errenteriako herritarrekiko adierazgarria den lantaldea sortu nahi da: adina eta generoa hartu dira kontuan. Gutxienez 16 eta gehienez 20 herritar izango ditu batzordeak.

### **Zer egin behar dut izena emateko?**

800 gutun inguru bidali dira guztira, eta beraz, izena ematen duzuen guztien artean gehienez 20 pertsona hautatuko dira zozketa bidez. **Zure parte hartzea baieztatzeko edo ezeztatzeko azken eguna martxoaren 20a da, horretarako**, <https://errenteria.eus/herritar-batzordea> helbidean eskura duzun formularioa bete beharko duzu, ZU! Zure Udala zerbitzura ere dei dezakezu 943 449 600 / 010

### **Zein konpromiso eskatzen du parte hartzeak?**

Eskatzen den konpromisoa da bi bileratan parte hartzea. Bi bilera horien datak honako hauek dira: maiatzak 7 eta maiatzak 14, 18:30ean. 90 minutu inguruko iraupeneko saioak izango dira. Bi bilera horien ondoren amaitu egingo da parte hartzea.

### **Zein izango da nire lana bertan?**

Aurtengo herriko jaietan omendua izateko jasotako 3 proposamenen artean nor izango den aukeratzeko. Martxoaren 1etik 31era jasotako proposamen guztien artean udaleko alderdi guztietako ordezkariak osatutako batzordeak 3 aukeratu ditu eta herritar batzordeak 3 hautagai horien artean izendatuko du 2025 herriko jaietako omendua.

### **Zer egingo da emaitzekin?**

Herritar Batzordeak egingo duen bigarren saioan, udal ordezkariak aurkeztuko diezue herritarrek zergatik aukeratu duzuen hautagai hori. Udal-ordezkariak bere egingo dute erabakia eta Udalbatzarrak berretsi egingo du.

### **Parte hartzera derrigortua nago?**

Ez da derrigorrezkoa parte hartzea, baina Errenteriako udal arduradunok bereziki animatu nahi zaitugu parte hartzera. Izan ere, herritar bakoitzak egiten duzuen ekarpena, hausnarketa partekatua eta aukeraketarako zuen irizpidea jasotzea garrantzitsua baita guretzako.

### **Ordainsaririk jasoko al dut parte hartzeagatik?**

Ez duzu ordainsaririk jasoko. Hala ere, herriko jaiei lotutako zenbait ekimen berezietan parte hartzeko aukera eskainiko zaizu.

### **Zein hizkuntzatan egingo da lan?**

Errenteriako hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira, nahiz eta badakigun beste zenbait hizkuntza ere hitz egiten direla. Bi saioetan euskaraz eta gaztelaniaz jaso ahal izango ditugu azalpenak, norbera eroso sentitzen den hizkuntzan hitz egiteko aukera izango da. Parte hartzaileen batek, parte hartu ahal izateko, bestelako hizkuntza-laguntzaren bat beharko balu adierazi, mesedez, eta bermatuko dugu.

## Aclarando dudas...

A continuación encontrará respuestas a una serie de cuestiones que conviene aclarar antes de aceptar la invitación de la alcaldesa a participar en esta comisión ciudadana para elegir a la persona o entidad homenajeadas de Madalenas 2025. Si tiene alguna otra consulta, no dude en preguntarnos a través de los canales de contacto que figuran aquí.

### ¿Cómo me han seleccionado?

Se ha utilizado el padrón municipal para realizar un sorteo entre toda la población mayor de 16 años, y se os ha enviado una carta a las personas seleccionadas.

### ¿Qué características se han tenido en cuenta para realizar el sorteo?

Se va a crear un grupo de trabajo representativo de la población de Errenteria, teniendo en cuenta la edad y el género. La comisión ciudadana estará formada por un mínimo de 16 y un máximo de 20 personas.

### ¿Qué tengo que hacer para apuntarme?

Se han enviado 800 cartas aproximadamente, por lo que se seleccionará a un máximo de 20 personas entre todas las apuntadas. **el último día para confirmar o declinar su participación es el 20 de marzo**, para ello debe rellenar el formulario que tiene a su disposición en <https://errenteria.eus/es/comision-ciudadana>. También puede llamar al servicio ZU! Zure Udala: 943 449 600 / 010.

### ¿Qué compromiso supone la participación?

El compromiso que se solicita consiste en participar en dos reuniones, que se celebrarán el 7 de mayo y el 14 de mayo, a las 18:30. Las sesiones durarán unos 90 minutos. Tras estas dos reuniones, se dará por finalizada la participación.

### ¿Cuál va a ser mi cometido en la comisión?

Se trata de elegir entre 3 propuestas cuál será la persona o entidad homenajeadas en las fiestas patronales de este año. De todas las propuestas recibidas entre el 1 y el 30 de marzo, la comisión integrada por representantes de todos los partidos del ayuntamiento seleccionará 3 candidaturas, y corresponderá a la Comisión Ciudadana escoger entre estas 3 a la persona o entidad homenajeadas de las fiestas patronales de 2025.

### ¿Qué ocurrirá con el resultado?

En la segunda sesión celebrada por la Comisión Ciudadana, se expondrá a la representación municipal el motivo de la elección por la ciudadanía de dicha candidatura. Los representantes municipales harán suyo el acuerdo, que será ratificado por el Pleno.

### ¿Tengo obligación de participar?

La participación no es obligatoria, pero las responsables municipales de Errenteria le animamos especialmente a participar. Para nosotras es importante recoger la aportación que pueda hacer cada ciudadano y ciudadana, su reflexión compartida, y sus criterios de elección.

### ¿Voy a recibir algún tipo de remuneración por mi participación?

No se percibirá retribución alguna. No obstante, sí se ofrecerá la posibilidad de participar en algunas iniciativas especiales relacionadas con las fiestas de Errenteria.

### ¿Cuál va a ser la lengua de trabajo?

Las lenguas oficiales en Errenteria son el euskera y el castellano, aunque sabemos que también se hablan otras lenguas. En ambas sesiones podremos recibir las explicaciones tanto en euskera como en castellano, y se podrá hablar en la lengua en que cada persona se encuentre más cómoda. Si alguna persona con ánimo de participar necesita otro tipo de apoyo lingüístico, por favor, que lo haga saber y lo garantizaremos.